

hik hasi

Hezkuntza eraldatzeko



5 € • 2024ko otsaila
285 znb

22-31

Mikel
Etxabururi
elkarriketa

32-35

Abestuz ikasi
webgunea

38-45

Sozializazio
goiztiarra (0-3 urte):
mundu bat
deskubritzeko

50-53

Proposamena:
Emakumeen
Eguna

54

Atzeko atletik

Auzmendi Beka, Jakinminentzat



hik hasi

Hezkuntza eraldatzeko

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA
Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua.
20018 DONOSTIA GIPUZKOA.
Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus;
Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus
Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Ainhoa Azpirotz, Ainara Gorostitzu,
Olatz Lasagabaster.

Erredakzio batzordea: Mikel Agirrezabala, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugarte-
txea eta Arantxa Urbe.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Nere Amenabar, Esti Amenabarro, Amaia Antero, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Elena Herran, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Olaia Jimenez, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Gofii, Nerea Mendizabal, Maialen Oiartzun, Naiara Ozamiz, Karmele Perez Lizarralde, Karmele Perez Urraza, Iratxe Redondo, Matilde Sainz, Nora Salbotx eta Xabier Tapia.

Komunikazioa: Paula Estevez.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Azaleko argazkia: Hik Hasi.

Diseinua: Sorland.

Maketazioa: Hik Hasi.

Inprimategia: ANTZA S.A.L.

Hezkuntza Sailak onetsia (2024-01-23).

Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko edukiak baliatu eta zabaldu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta soilik baldintza beretan eginez gero. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plaza-ratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.



MIHI-PUNTAREN PUNTAN

Xabier Olano
Higinia Garay

Urteari itzulia 365 igarkizunetan

Istripu handia LINA PLASTILINA

Izaro Arroita
Josevisky



Liburu honen barruan bidaiari,
zirkuan bizi izango naiz aldi batean;
eta ondoren, itxas bidaiari arriskutsu
batean abiatuko naiz!

Aurkibidea

“

Hizkuntzaren auzia politikoa da eta hiztun taldeek duten boterearen arabera erakarmen indarrak bideratuko du hizkuntzaren berreskurapena edo galera

Iker Salaberria

6

EDITORIALA

Alternatiba posible eta beharrezkoa da

8

IRITZIA

10

HILEKO IRUDIA

Gizarte ekimeneko ikastetxeak, protestan

12

GAI NAGUSIA

Jangeletako eredu ezbaian



22

ELKARRIZKETA

Mikel Etxaburu



32

ESPERIENTZIA

Abestuz ikasi webgunea: bilduma bat baino gehiago

38

EKARPENA

Sozializazio goiztiarra (0-3 urte): mundu bat deskubritzeko



46

AHALDUNTZE ESKOLA

Gora egin du arriskuak

50

PROPOSAMENA

Emakumeen Eguna



54

ATZEKO ATETIK

Aitor Urkiza



Ikasturte hasieran Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko ikastetxe publiko batzuetako jangeletan izan diren gertakari larriek jangela ereduaz eta elikaduraz hausnartu beharra mahai gainean jarri du. Eredu onak Euskal Herrian bertan dauzkagu.

Alternatiba posible eta beharrezkoa da

Editoriala

Haurren jangelako menu batzuetan harrak eta bestelako intsektuak agertu dira ikasturte honetan eta, azkenean, familien protestei esker, lortu dute menu horiek zerbitzatu dituen catering enpresaren kontratuak etetea eta umeei otorduetan beste enpresa batzuek zerbitzatzeari. Beste ikastetxe askotan ere kexatu dira haurrak, familiak eta hezitzaileak, umeei eskaintzen zaizkien menuen kalitatea dela-eta; inzidentziak jasotzen ari dira ikastetxerik ikastetxe. Aldaketa eskatzeko argudio asko dituzte.

Aldaketa posible delako. Sare bereko ikastetxeek erakutsi dute, aldaketa posible dela: 2000. urtetik Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoko ikastetxe publikoetako jangelen kudeaketa zentralizatuari alternatiba planteatu zioten 2016ean lau proiektu pilotuk (Gernikako, Urduñako, Laukarizko eta Markinako eskolek) eta zortzi urtera erakutsi dute posible dela egunero tokian tokikoa, kalitatezkoa, sasoikoa eta ekologikoa kontsumitzea. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxe publikoetan salbuespenezkoak diren kasuak, orokorrak dira beste leku batzuetan.

Eta ez daukagu urrutira joan beharrik. Eredua etxean daukagu, eredu ona Ipar Euskal Herriko ikastetxeetan daukagu. Hala joan dira Debagoienetik Nafarroa Beherera eredu bila. Sarerik sareko eta administrazioerik administrazioerik begirada hertsia erordez, honetan ere begirada zabala behar dugu, sareez gainera eta nazio mailakoa, eta ikusiko dugu Ipar Euskal Herriko ereduak balio digula Hegoaldean, eskola publikoetan, gizarte ekimenekoetan eta ikastoletan. Kontua ez da soilik kudeaketarako autonomia edukitzea (Hegoalde osoan itunpekoek ere badaukate) kontua haurren osasuna lehenestea da, eta horretarako gakoak jasangarritasuna da: tokian tokikoa eta garaikoa kontsumitzeak dakarrena, eta horretan Nafarroako, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoko itunpeko ikastetxe askok ere badaukate zer ikasia.

Eredu horrek, guztiok aberasten gaitu. Haurrak lehendabizi. Ikastetxeak ondoren, jangelako proiektuak eskolako proiektu bihurtzen diren heinean; eta, zer esanik ez, komunitatea.

50 ikastetxek baino gehiagok eskatu dute euren eskolan sukaldaria erakitzea, eta beste hainbestek jangela ereduak aldatzea. Kudeaketa aldatzeko, ikastetxeek ezin dute euren haurren menuetan harrak eta bestelako intsektuak agertu zain egon.



Mañolo Espellet
Irakaslea eta *hik/hasitarra*

Zuzentasuna

Ipar Euskal Herriko ikastoletan usu oroitazten zaigu frantses errepublikaren goiburua: *Liberté, Egalité, Fraternité*. Bigarren hitz hori batez ere: zuzentasuna. Errepublikaren presidentearen azken diskurtsoa argia zen: kolegio guzietan uniforme beztiturik berriz, *Marseillaise*-a ikasgela guzietan kantari... Aterabide horiei esker galdutako paradisu pedagogikoa berreskuratzen joan gaitezke Zuzentasun Errepublikanoaren Eskolan... edo Kontraesanen Eskolan?

PISA ebaluazioek erakusten dute, duela 20 urtetik, frantses eskolak ikasleen arteko ezberdintasun sozialak areagotzen dituela. Frogatua da ikasleak eskola mailaren arabera modu iraunkorrean multzokatzeak ez duela eragin baikorrik, bereziki ahulenentzat (usu jatorri xumeetakoak maleruski) —*Innovations, Données et Expérimentations en Education* programak horixe dio—, baina berdin du; 2024ko sartzearan Matematika eta Frantses ikasgaietan horrelako taldeak sortuko omen dira.

Zuzentasunaren izenean, estatu frantsesaren eskola guzietan ahalbide berdina behar dira eskaini: ordu eta minutu berak, dispositibo eta deklarazio berak, curriculum zehatzak... ikasle batzueganako ondorioak edo lorpen eskasak begiratu gabe. Estandarizazioak zuzentasuna baztertu du eta hor konpon!

Eta Seaskan? 1994an jadanik, estatuarekin elkarte kontratua izenpetu aitzin, negoziaketa korapilatsuak izan ziren. Frantziako Hezkuntza Ministeriokoek berdintasuna eta zuzentasuna aipatzen zituztelarik, Seaskakoek sistema "inegalitarioa" aldarrikatzen zuten, behar handiagoak dituen ikasleak arreta eta ahalbide gehiago behar duela argudiatuz.

Funtzionamendu gastuen parte handia gurasoek haien gain hartu behar izaten dutelako, ikastola ezin da urrikeri izan oraindik Ipar Euskal Herrian. Hala ere, eskolaren aukeratzeko irizpide nagusiak euskara eta pedagogia izan ki, jatorri sozial oso ezberdinetako gazteak nahasten dira ikastoletan, mistotasun soziala bultzatuz. Nahiz eta familien hilabetsarien batezbestekoa nahiko altua izan, muturreko familien arteko ezberdintasun sozio-ekonomikoak oso handiak dira.

Gizarte baketsua eta gure garaiko erronkei aurre egiteko gai dena erdiesteko, mistotasun sozial minimoa bermatzea ezinbestekoa dela dirudi eta, nire ustez, ikastolak hara joan behar du. Behar duten guneetan indartzeko eta besteetan atxikitzeke lana ez da erraza izanen. Gogoeta horretan uzten zaituztet frantses pedagogo eta idazle Philippe Méreux-en hitzokin: "Halaberharren eta ezberdintasun sozialen aurkako borroka kirola da pedagogia". Izan untsa eta motibaturik egon.



Nora Salbotx Alegria
Maistra eta *hik/hasitarra*

Euliaren Pedagogia eta bariazioak

Bernard Collot-i zor diogu landa eremuko eskolen defentsa eder bat eta Freineten ekarpenek XXI. mendean zentzua badutela konprenitu ahal izatea.

Eta pedagogia bat euliarena, hori ere zor diogu. Edo, hobeki ulertuko bada, euli baten hegaldiaren bueltan-bueltan egiten ahal dugun pedagogia, horretara jarri nahi izatera, bistan dena. Izan ere, zer da euli bat ikasgelan? Informazio bat! Asaldura bat! Nahasmen du bat! Aztertu beharreko mamurru bat! Edo, zehatzago erranda, zientifikoago erran nahi baita, aztertu beharreko dipteroen ordena ko, beraz, bi hegal dituzten intsektu ordena anitz horietako bateko, espezie saldoa, zeinei hegoak halterio bilakatu baitzaizkien, no eta to! Aukera bat!

Baina, unea baliatuko badugu, diosku pedagogia frantziarrak, nonbaitetik hasi behar, eta, zer hobe, geure buruekiko ziurtasuna ongi frinkatzetik hastea baino. Hortik aitzin zenbait gauza gertatzea baizik ez litzateke faltako. Zabaldu ikasgelako leihoa.

Orain euli bat sar dadin litzateke desiragarri. Eta haur batek hura ikusi dezala. Hari begira gera dakioke, eta kokotxa eskuartearen pau-

satuta, amesten ahalko luke bera ere hegan egiteko gai dela. Euliari solas egin diezaioke eta bere ametsa kontatu. Arte tailerrera joan eta euliaren bidaia marrazten ahalko luke, eta bertsotara ekarri ere. Gero, ikusbera baita, euliek igeri egiteko gai ote diren probatzeko gogoia izaten ahalko luke haurrak. Haren lagunek, ur potoan ziri bat sartuta, ito hurrenden eulia uholdetik salbatu arte. Handik zientziaren txokora karraiatzen ahalko lukete eulia pospolo kutxa batean sartuta (buru-oharra_1.a: Ba ote dira oraindik ere pospolo kutxak? Ikertu mistoez ondoko aldian). Lupaz eta mikroskopioz behatzen ahalko lukete, eta pantaila batean proiektatu, bere begien forma aztertu eta galdera berriak pausatu. Ikaskideek erantzunak Wikipedian bilatzen ahalko litzukete eta ulertzen ez dituzten hitzak berriz bilatu, sarean zein eskolako liburuetan ere (buru-oharra_2.a: hurrengoan azaldu nola den Wikipedia ezagutzaren auzolan erraldoi bat).

Ulitxak, euli-beltzak, manduliak eta eltsuntsak badirela ikasi, Beltzebu eulien erregeaz solas egin eta nola filistiarren jainkoa izan zen, filistiarren non bizi ziren ikertu eta Gazan akitu, non, zazti, euliak bailiran akabatzen dituzten gaurko deabru sionistek haurrak (buru-oharra_3.a: aipatu euliek ez dutela sionismoaren errua).



Hileko irudia

Gizarte ekimeneko ikastetxeak, ekinean

Protestek aurrera jarraitzen dute. gizarte ekimeneko ikastetxeetako langileek Hitzarmenaren alde egiten hamalau greba egun eta hamaika manifestazio egin dituzte ikasturte hasieratik. Urtarrileko greben aurreko asteetan, patronalek bileretara deitu zituzten sindikatuak, baina horiek ez zituzten nahikotzat jo akordioa lortzeko gakoak, eta gutxieneko edukirik ez zitzaiera aurkeztu salatu zuten. Langileen funtsezko eskariak honakoak dira: "lan kargak arintzeko neurriak, sektore feminizatu eta prekarioenentzako hobekuntzak, enplegua bermatzeko neurri zehatzak, Lanbide Heziketako edukia eta KPIa bermatuko duten eta finantzaketa publikoari lotu gabeko soldatak". "Aurrerapausorik ezean", greba dinamikarekin jarraitu beste biderik ez dutela izango esan dute sindikatuak, eta otsailean greba gehiago deituko dituzte gauzak aldatzen ez baldin badira.



Gai nagusia

Bertakoa eta kalitezkoa: posible da

Ikasturte hasieran hainbat ikastetxetako jangeletan oso kalitate txarreko elikagaiak topatu dituzte haurrentzako ziren otorduetan. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako eskola publiko batzuetan izan dira inzidentzia larrienak eta kasu guztietan kudeaketa zuzeneko catering enpresa berri baten eskutik. Gertakariak jangela-ereduaren eta elikagaien gaineko hausnarketa bultzatu dute. Hain izan dira larriak egoerak kontratuak etetera iritsi direla bi aldeak: Eusko Jaurlaritza eta Serunion. Kudeaketari dagokionez, alde handia dago Euskal Herriko eskoletan.



» Gernikako Allende Salazar eskolako jangela. Zutik, ezkerretik hasita, Dabid Zelaia-Zugadi Guraso Elkarteko kidea Leire Meabe sukaldaria, Aritz Zearra zuzendaria, Olate Arrarte jantokiko proiektu arduraduna, Eider Zenigaonandia hezitzailea eta Nerea Basterretxea jantoki arduraduna.

Ikasturte hasieran hainbat ikastetxetako jangelak notizia izan dira: oso kalitate txarreko elikagaiak topatu dituzte umeentzako ziren menuetan. Alarmak pizteko moduko gertakariak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxe publiko batzuetan izan dira, eta kasu guztietan kudeaketa zuzeneko catering enpresa berri baten eskutik gertatu dira: Serunion catering enpresa. Oso larriak izan dira gertakari batzuk, harrak ere agertu dira menu batzuetan, eta, ondorioz, utarrilaren 24an jakinarazi dute bertan behera utzi dituztela Hezkuntza Sailak eta Serunionek zituzten hainbat kontratu. Etete horiek hamazazpi ikastetxe publikori eragingo diete otsailaren 5etik aurrera. Gertakari larriek haurren eta nerabeen,

gurasoen eta guraso elkarten, irakasleen eta hezitzaileen artean jangela-ereduaren eta elikagaien gaineko hausnarketa bultzatu dute. Nola kudeatu jantokiak elikaduraren, heziketaren eta hezitzaileen lan baldintzen ikuspegitik guztien premiak asebetetzeko?

Euskal Herriko ikastetxeetan oso modu desberdinean kudeatzen dira ikastetxeetako jangelak, lurraldearen, sarearen eta tamainaren arabera. Ipar Euskal Herrian, ikastola itunpeko, zein ikastetxe publiko, jangelen kudeaketa deszentralizatua da eta ikastetxeek autonomia dute kudeaketa ereduaren, menuen diseinuan eta elikagaien hornikuntzan. Nafarroan itunpeko ikastetxeek jangela kudeatzeko

eskuduntza dute, eta haien esku gelditzen da jangela ereduaren aukera: catering garraiatua, catering bidezko hornitzea eta *in situ* kozinatzea, tokian tokiko erosketa egitea eta bertan kozinatzea... Nafarroako ikastetxe publikoetako janglei dagokienez, horiek arautuko dituen lege berria amaitzen ari da Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentua, eta ikastetxeen eta guraso elkarten ekarpenak jasota, hobekuntzak espero badira ere, indarrean dagoen araudiak ere aukera anitzak eskaintzen dizkie ikastetxeei: catering bidezko zerbitzua aukeratzen dutenen artean, janaria beroan garraitzea edo soilik elikagaiak garraiatzea izan daitezke aukerak, ikastetxeak kozinatzeak aukera duen ala ez; eta horien kasuan ere, catering lizitazioak ez direnez sorta handietan banatzen, tokian tokiko enpresek edo kooperatiba txikiek lehiarako aukera izan dezakete. Badira ikastetxe publikoak, bertan kozinatzeaz gain, tokiko hornikuntzarako autonomia baliatzen dutenak ere, hau da, erosketa publikoak egiten dituztenak. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako kasuan,

Nafarroan bezala, itunpekoek eskuduntzak eta autonomia osoa dute kudeaketa ereduak aukeratzeko, eta ikastetxearen erabakia izango da, beraz, catering enpresa handi baten zerbitzuak kontratatzea ala tokian tokiko elikadura eta sukalde baliatzea. Aldiz, ikastetxe publikoen kasuan, kudeaketa zuzena deiturikoa —catering bidezkoa— da araua eta lizitazioak eskaintzen direnean, eskolak sorta handitan banatzen dituztenez, zazpi enpresa handiren artean kudeatzen da Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxe publiko guztietako hornikuntza. Kudeaketa zuzen hori hiru modalitatetan bereizten da: garraiatuen kasuan, kanpoan kozinatu eta ikastetxean zerbitza-

tzen da; *in situ* sukaldeak daukaten kasuan, catering enpresak hornitzen ditu ikastetxeak eta elikagai horiekin eskolan kozinatzen da, eta hirugarrenik, mistoak daude, ikastetxe berean, zikloen edo eraikinen arabera, otorduak kanpoan prestatzen dizkiete ala *in situ* ikastetxeko sukaldeetan egiten dute.

Ahots ugari entzun dira azken urteetan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastetxe publikoek ere jangela ereduaren eskuduntza eta autonomia gehiago izan dezaten, bereziki elikadura ereduak aukeratzeko eta catering enpresa

handien katetik ateratzeko. Izan ere, gertakari larrienak Serunion enpresarekin gertatu baldin badira ere, beste enprekin ere kexak izan dituzte. Irailetik hona, EHIGE Guraso Elkarten federazioak deituta, ikastetxerik ikastetxe, inzidentziak jasotzen ari dira jangelak ere, kasu askotan gurasoek euren txandak egiten

dituzte menuak dastatzeko. Behin epe batean inzidentzia guztiak bilduta, horiek aztertu eta erabakiko dute nora joan. Bitartean, dagoneko, eskola batzuek lortu dute aldaketa, protestei esker.

Pilotuak, salbuespen

Baina egon, badaude salbuespenak ikastetxe publikoen artean ere. 2000. urtetik indarrean dagoen ereduak ez du uzten, aurretik egiten zen moduan, eskola bakoitzak bere funtzionatzeko modua arautzea eta eskola komunitateak jangelaz arduratzea —Larrabetzuko eta Erandioko eskola izan dira urte hauetan



**Irabazi asmorik gabeko
elkartek gara eta
bitartekaririk gabe erosten
dugu. Horri esker, % 35 arte
gehiago ordaindu dezakegu
elikagaiengatik**

Dabid Zelaia-Zugadi, gurasoa

guztietan beren kudeaketari eutsi dioten ba-karretakoak—. Orduko “anabasa”-ren aurrean, “eskola publikoetako jangeletako eredua eta zerbitzua unibertsalizatzeko asmoarekin” egin zuen dekretua Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak. Dekretu hark jangela “zerbitzu osagarri” moduan kudeatzeko aukera ematen du. 2013 ikasturtean zirrikitu bat ireki zieten lau ikastetxeri, eta “zerbitzu osagarri” moduan ez eta elikadura eta pedagogia eredu berri bat gauzatzeko aukera eman zieten proiektu pilotu moduan: Gernikako Allende Salazarri, Markinako Bekobentari, Laukarizko eskolari eta Urduñakoari. Jantokietan beste eredu bat posible ote den probatzeko proiektu pilotua izan zen, eta zazpi-zortzi urte geroago erakutsi dute baietz, posible dela.

Gernika eta Urduña, bi eredu

800 ikasle ditu Gernikako Allende Salazar eskolak, eta egunero 700 ikaslek bertakoa, garaian garaikoa eta, neurri handi batean, ekologikoa jaten dute, eskolako sukaldean kozinatuta. “Gure esperientziak erakusten du baietz, posible dela. Laurok, bakoitzak bere ereduari, Mungia txikia izanik, Markinako er-taina eta Urduñakoa Udal sukaldearekin, alter-natiba posible dela erakusten dugu”, adierazi du Allende Salazar eskolako Guraso Elkarte-ko Dabid Zelaia-Zugadik. Hasierako helburuak betetzat ematen dituzte zazpi urteren buruan: “Elikadura osasuntsua sustatzea seme-alaben ongizaterako tokiko elikagaiak, sasoikoak eta kalitatezkoak eskainiz; elikadura-hezkuntza gauzatzea, jantokiaren ereduaren aldatzarekin batera eduki curricular berriak sortu baitira, hala nola eskolako baratzea edota familiei zuzenduriko kanpainen bidez; lehen sektorea suspertzea eta, laugarrenik, iraunkortasuna”. Datuek berresten dute Zelaia-Zugadik esanda-koa: gaur-gaurkoz Allende Salazarreko haurrek jaten dutenaren % 45 Busturialdean bertan ekoitzia da, beste % 28 Bizkaian, beste % 12 Euskal Herrian eta gainerako % 15 Espainiako



» Gernikako Allende Salazar eskolan egunero 700 umek

bazkaltzen dute.

Estatuan. Horietatik % 44 ekologikoak dira, % 25 baserrikoak eta labeldunak eta % 22 naturalak, hala nola, arrain freskoa edota kontserbak. Urduñako datuak ere antzekoak dira. Ikastetxea txikiagoa izanik ere, tokian tokiko nekazariekin eta abeltzaineekin kolaboratuz eta komertzio lokalean inbertituz egiten baitu hornikuntza Urduñako eskolak, guraso elkarteak kudeatuta.

Gernikan, Mungian eta Laukarizen aldean, beste bide bat urratu du Urduñak, ikastetxe ugarirentzako eredu izan daitekeen alternati-ba eskainiz: Urduñako eskolak sukaldetik ez



Elikadura burujabetzaren eta agroekologiaren gainean urtetan landutako kontzeptu teorikoek lur hartu dute jangela ereduari esker, jendeak ulertu du zertaz eta zertarako ari ginen

Marijo Imaz, Urduñako teknikaria

Eskualde osoa, elkarturik

Proiektu pilotuetan parte hartzen ari diren ikastetxeak trakzio efek-tua egiten ari dira bai tokian tokiko lehen sektorea suspertzen, eta baita hezkuntza arloan ere, beste ikastetxeen eredu diren neurrian. Gernikako Allende Salazar eskolaren kasuan, inguruko ikastetxe guztiak mugitu ditu. Herriko Seber Altube ikastolarekin eta Barrutialde BHLre-kin harreman ona duenez, hiruak batuta hainbat ildotan elkarlanean hasi ziren, eta jarraian, Busturialdeko 16 ikastetxeak (11 publiko eta 5 itunpeko) elkartu dituzte Janguria egitasmoan, “iraunkortasuna, elika-dura osasuntsua eta tokiko ekono-mia garapena helburutzat hartuta”. Lobby funtzioa eta elkartasun boka-zioa dauka Janguriak eta elkarrekin adostasun estrategiak lortu dituzte. Sentsibilizazio kanpaina antolatu ditu Janguriak eta tokiko erakundee-kin eta alderdiekin interlokuzioak izan ditu. Eusko Jaurlaritzari ere eskualdeko ikastetxe guztiek elka-rrekin egin diote indarrean dagoen eredua aldatzeko eskaera.



Urduñako eskolan, Eba Colomino gurasoa, Enartze Larrakoetxea zuzendaria eta Marijo Imaz teknikaria.

daukanez, herriko udal sukaldea baliatzen du jangelako jana kozinatzeke (ikastetxearen ondo-ondoan dago). Udal sukaldean adinekoen egoitzarako jana ere kozinatzen da, eta Udalak hura erabiltzeko baldintza jarri zuen udalak: tokian tokiko hornitzaileei lehentasuna ematea.

Horri datu ekonomikoa erantsi behar zaio: Gernikako kasuan, ikasturtero 200.000 euro inguru gastatzen dituzte elikagaietan, eta zazpi ikasturte eta erdi daramatzate eredu berriarekin, beraz, milioi euro eta erdiko inbertsioa egin dute lehen sektorean. “Erdia eskualdean gastatu dugu, eta beste kopuru handi bat Bizkaian”, zehaztu du Zelaia-Zugadik. Urduñako eskolako Guraso Elkartek ikasturtero 45.000 euro inguru gastatzen ditu elikagaietan, “hortik kopuru handiena herriko edo inguruko ekoizle txikientzako da, nekazarientzat edo koope-

ratiba txikientzat”, adierazi du Eba Colomino Guraso Elkarteko kideak. Eta Enartze Larrakoetxea eskolako zuzendariak zehaztu duen moduan, “menuen prezioa aldatu gabe”, egin dute jangela ereduaren aldaketa; “gainerako eskola guztietan bezala kobratzen zaie menua familiei, eta langileen lan baldintzak ere berdinak dira”.

Jangelaren eragina, hezkuntzan

Nola da posible? Nola liteke, menua gainerako ikastetxe publikoetan bezala, 4,60 euro kobratuz, tokian tokikoak, sasoikoak eta neurri handi batean ekologikoak diren elikagaiak kontsumitzea bai Urduñako eskolan eta Gernikako Allende Salazarren, eta baita Mungiako Bekobentan eta Laukarizko eskoletan? “Eredu honekin ez delako negoziarik egiten”,

Jangelaren eredu aldaketarako gakoak

Gernikako Allende Salazar eskolari askotan egokitu zaio jangela eredu hobetu nahi dutenei kezka argitu beharra, eta aholku hauek eman ditu Dabid Zelaia-Zugadi gurasoak:

- » “Eskola-komunitatea sentsibilizatu eta indartu, komunikazio eta kohezio lana eginez”.
- » “Sukaldearen eskaera abiatu, sukalderik ez dagoen kasuan. *In situ* kozinatzea beti hobea baita”.
- » “Bertako produktuen proiektu bat egin, beste eskola komunitateekin, tokiko herri erakundeekin edo herri mugimenduekin lankidetzan”.
- » “Eskaera formalak egin”.

erantzun dute Zelaia-Zugadik eta Colominok. “Familiek berdin ordaintzen dugu eta administrazioak gurekin ez dauka catering bidezko kudeaketaren aldean aparteko gasturik. Zein den bideragarritasunerako gakoa? Negozio helburuak ekuaziotik ateratu ditugula —adierazi du Zelaia-Zugadik—. Irabazi asmorik gabeko elkarteak gara eta bitartekaririk gabe erosten dugu. Letxuga batek euro bat balio baldin badu, euro bat ordaintzen dugu, ez baitago bitartekaririk. Horri esker, % 35 arte gehiago ordaindu dezakegu elikagaiengatik, eta hori kalitatean inbertitzen dugu”. Bat dator Colomino: “Posible da, zenbakiak ateratzen dira.

Menuak egokitu egin behar dira; lehentasuna gure seme-alabek inguruko eta kalitatezko produktuak kontsumitzea denez, hor egiten da inbertsioa”.

Inpaktua ez da soilik ekonomikoa eta ikasleen ongizateari begirakoa izan. Pedagogian eragin du. “Elikadura burujabetzaren eta agroekologiaren gainean urtetan landutako kontzeptu teorikoek lur hartu dute jangela ereduari esker, jendeak orduan ulertu du zertaz eta zertarako ari ginen, eta ez soilik haurrek eta familiek, baita kaleko herritarrek ere”, adierazi du Marijo Imazek. Imaz Urduñako Udaleko dinamizazio agroekologikorako zerbitzuko teknikaria eta udal sukaldearen proiektuaren arduraduna da. “Hezkuntzari begira horrek guztiak badu inpakturik”, erantsi dio Larrakoetxeak: “Teorian, curriculumean esaten dieguna, egunero bizi dute ikasleek jaten duten horretan”. Gernikako eskolan ere, jangela ereduaren eraldaketaren hasieratik “jantokiko proiektua eskolako proiektua izatea eta curriculumera gerturatzeko” izan da asmoa, Aritz Zearra zuzendaria- ren arabera: “Amara Berri proiektuaren barruan gaude, eta horrek testuinguru ugariatko gaiak antolatzean jangelako proiektuarekin lotzeko aukera ematen digu. Izan lehen sektorea, geografia, iraunkortasuna, osasuna, aniztasuna...”. Orain, ongizatea, iraunkortasuna edota lehen sektorea suspertzeko helburuak lortuta, “zer jan” hobetu dutelarik, bi ikastetxeen erronka “nola jan” hobetzea da.

Salbuespena, arau

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako eskola publikoetan salbuespena da jangelan tokian tokiko elikagaiak eskaintzea. Inguruko eredu onak jarraituz audia aldatzea eta aukerak zabaltzea eskatzen dute eragileek.

Arazoak sortu dituen jangela eredu hau da, *kudeaketa zuzena* deituriko catering enpresa handien bidezko hornikuntza, araua da Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxe publikoetan, eta salbuespenezko edo *pilotu* dira tokian tokiko elikagaiak eta bertan kordinatuak eskaintzen dituzten eskolak. Gure Platera Gure Aukera elkarteak, hain zuzen ere, kontrako norantzan eragiteko sortu zuten hainbat eragilek, Ehigek eta Bidezko Elikadurak, besteak beste. Gobernu kanpoko erakunde horretako kide eta Gure Platera Gure Aukerako eleduna da Eneko Viñuela, eta argi dauka norantz jo behar den eskoletako jangela eredu hobetzeko: “Gero eta kudeaketa eredu deszentralizatuagoa izan, orduan eta gardenagoa eta hobe da sistema. Bidaia asko egin ditugu Europara eskoletako jangela ereduak ezagutzeko eta kanpoan ulertzen ez dutena, hain zuzen ere, ikastetxe publiko hauetan araua den eredu da. Proiektu pilotuek erakutsi dute posible dela jangela eredu osasuntsua, jasangarria eta bidezkoa edukitzea. Beraz, araudia aldatzea beharrezkoa da”.

Italiako ereduak jartzen du adibidetzat Viñuelak. Sare publikoko ikastetxeen jangelen kudeaketa deszentralizatuak daukate, jangelak udalek kudeatzen dituzte, baina lizitazioetako baldintzak oso zorrotzak dira elikagaien kalitateari dagokionez, ekologikoa, sasoiakoa eta tokian tokikoa izateak lehentasun ikagarria du enpresek bete beharreko lizitazio-eskakizunetan. “Italian honakoa galdetzen digute: zer egiten dute zuen nekazariak? Nola saltzen dute?”. Italiaraino joan gabe, Katalunian ere eredu oso deszentralizatuak daukate, eta bereziki Ipar Euskal Herriko erreferentzia nabarmentzen du eredu garri moduan: “Normaltasun osoz bizi da bertako produktuak eskoletako menuetan egotea, betidanik hala izan delako eta ez delako bestelako ereduak ulertzen. Erosketa publikoak egiten dira diru publikoarekin eta oso ongi antolatutako zirkulu konzentrikoen bidez saretzen dira ekoizleak eta kontsumitzaileak, guztien onurarako”.

Nafarroan ere egoera deszentralizatuagoa egoteak ahalbidetzen du, Gure Platera Gure Aukeraren aburuz, aldaketak egiteko aukera, eta udalen inplikazioarekin menuak hobetze-



» Ipar Euskal Herriko ikastetxeetako jangela ereduaren erreferentzia ona izango litzateke ikastetxe guztientzat, Gure Platera Gure Aukera ekimenaren aburuz. Arg.: Allende Salazar eskola.

koa eta tokiko ekoizpena sustatzeko. Aldiz, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako sare publikoan aurrera begirako hobekuntzak proposatu baldin badira ere, oraindik ez da jakinarazi kudeaketa zuzena lehenetsiko ez duen ereduak. Gure Platera Gure Aukerak hainbat agerraldi egin ditu Legebiltzarrean Hezkuntza Legearen prozesuan, funtsean ikastetxeen autonomia gehiago izan dezaten eskatzeko, horrek ahalbidetuko baitu “menuen kalitatearen hobekuntza, bidezko elikadura eta sukaldaria lanabes pedagogiko bihurtzea”.

Araudia aldatzeko beharra

Pilotu izaerarekin abiatu ahal izan zuten duela zazpi urte Gernikako, Laukarizko, Mungiako eta Urduñako eskolek jangela-ereduaren aldatzea, eta orduan, “pilotu” edo “salbuespenezko” izaten jarraitzen dute, eredu jasangarriak gauzatuz. Gernikako eta Urduñako eskolek

argi adierazten dute araudia aldatu behar dela, bai euren artean, baina nagusiki “eredu alternatiboa eta osasuntsuagoa eskola gehiagotara zabaltzeko”, Dabid Zelaia-Zugadiren hitzetan. “Araudian *kudeaketa osagarria* deritzen aukera zabaltzea eskatzen dugu, kudeaketa zuzena nahi ez dugunok, proiektu bat aurkeztu, tokiko erakundeek parte hartzea eta trantsizio batean eskola komunitateen autonomia izatea eskatzen dugu”. Urduñan ere ados daude, jangela proiektuko teknikari Marijo Imazek dioen moduan: “Gure ardura bikoitza da; batetik, gure proiektuak aurrera eramane behar dugu, baina gureak aurrera egin behar du beste batzuek ere eredu aldatzeko aukera izan dezaten”. “Aldiz, markoa aldatzeko balitz, bidea zuzen delako, guri ere segurtasuna emango liguke eta nahi duten eta hala eskatu duten ikastetxe gehiagok izango lukete jangela eredu jasangarriagoa”, erantsi dio Enartze Larrakoetxea zuzendariak.



Mikel Etxaburu

HUHEZI-KO IRAKASLEA ETA IKERLARIA

“ Ez dugu beste misiorik aurrean dugun pertsona horren garapenean eragitea baino

Ikaslearen ikasketa prozesua modu kolektiboan pentsatzea, ekitea eta ebaluatzea. Horixe da irakaskidetza Mikel Etxaburu Huheziko irakasle eta ikerlariaren esanetan. Bitarteko bat baino ez da, irakasleen helburu nagusia ikasleen garapenean eragitea baita. Talde lana eskatzen du eta nork bere buruko hormak zartatzea ere bai. Betiere, lana ilusioz eta pasioz egiteko helburuz.



Ko-irakaskuntza, irakaskidetza, ko-dozentzia, irakasletza konpartitua... kontzeptua bakarra da, baina izendapenak ugari. Zertaz ari gara horietaz ari garenean?

Oinarrian eraikuntza kolektiboa duen ikasketa prozesu bat da. Irakasleok aspaldi ari gara bide kolektibo horiek egiten, baina askotan modu intuitiboan egiten ditugu eta irakaskidetzak zera bilatzen du: bide intuitibo horietatik abiatuta, egiten ari garen horri identifikazio maila bat ematea sistema bihur dadin. Intuizioa abiaburua da eta ondoren ezinbestean ebaluagarria izango den objektibazio prozesu bat behar da. Bitarteko ebaluagarriak planteatzen ez baldin baditugu, ziur aski aurrera egingo dugu, baina iparra ongi kokatu gabe. Irakaskidetza enborreko hautu pedagogikoa da eta identifikaziorako urratsa egitea eta horretarako dispositiboak zein izan beharko liratekeen ezagutzea eskatzen du. Funtsean ikaslearen ikasketa prozesua modu kolektiboan pentsatzea, ekitea eta ebaluatzea da irakaskidetza.

Irakaskidetzak talde lana eskatzen du. Irakasleen arteko harremanak lantzea ere eskatuko al luke?

Derrigorrez. Irakaskidetzak norberak duen onena eskaintzea eta besteak eskain diezazukeen onena zeure egiteko prest egotea eskatzen du. Irakaskidetzaren oinarria eremu berean eta une berean bi irakasletik gora lanean aritzea baldin bada, horrek elkar ezagutza maila handia eskatzen du. Elkar osatzea ekarri beharko luke eta elkar osatzeko ariketa zintzoak egin behar dira, nork bere buruarekin lehenik eta alboan dugun pertsonarekin ondoren. Eta osatze hori alderdi pertsonalean gertatu behar da, baina baita konpetentziei eta ezagutzei dagokienez ere. Askotan pentsatzen da paretak botatzeak, adibidez, irakaskidetza ahalbidetuko duela, eta paretak fisikoak botatzea erraza da, baina bestelakoak botatzea, ez da erraza izaten.



Funtsean, irakaskidetza ikaslearen ikasketa prozesua modu kolektiboan pentsatzea, ekitea eta ebaluatzea da

Irakaskuntzan aritzeko geure buruko paretak zartatzea ezinbestekoa da. Orain arte zure gela, zure ikaslea –zure hori erlatibizatuta, jakina– izan den hori partekatu behar duzu eta horretarako borondate esplizitua behar da. Jakina, baita errespetuzko jarrerak eta malgutasun handia ere.

Bizitzarako ikasbide ere bada irakaskidetzan aritzea. Irakasleen formazio pertsonalerako eta formazio akademikorako baliagarria da. Irakasleren bat agian ez dago bere konfort eremu horretatik ateratzeko prest –eta horretarako dituen arrazoiak ulergarriak eta zilegi izan daitezke–, baina ardura komuna dugu eta gure misioa zein den argi izan behar dugu. Geure misioa bakarra da: ez dugu beste misiorik aurrean dugun pertsona horren garapenean eragitea baino. Eta borondate hori garrantzitsua da, baina ez da nahikoa nahiarekin, bulkada batekin, intuizio batekin. Ikastetxeak horren aldeko hautua egin behar du. Zuzendaritzak bere plan estrategikoan kokatu beharko luke hautu pedagogiko hori, merezi duen sostengua-rekin. Batzuetan ez da baldintza fisiko hain onik egongo, baina baldintza humanoetan, hau da, eremu subjektiboan, baldintza oso egokiak egongo dira. Kasu horretan sormena aplikatuko dute eta gauza zoragarriak aterako zaizkie, irakasleek elkarrengandik ikasteko gogoia izango dutelako. Ikastetxearen aldetik babesa, entzutea egon behar du, zuzendaritzak proaktiboa izan behar du, eta baldintzak edozein direlarik ere guztia ahalik eta egokien kudeatzeko borondatea, eskuza-baltasuna... egon behar dira. Azken batean ikastetxe horren garapen estrategikoari eragiten dion hautu pedagogiko zentral bati buruz hitz egiten ari gara.

Modu intuitibotik modu kontzientera pasatzeko prozesu bat bizi behar da, beraz.

Zalantzarik gabe. Gauzak eremu kontzien-

tean lantzen ez badira, ondoren ez da transformaziorik etorriko. Bi irakaslek edo gehiagok gela batera sartu aurretik, saioa elkarrekin pentsatuko balute, aldeztu aurretik pentsatuko rolen arabera arituko balira eta ondoren hori ebaluatuko balute, lana emankorragoa izango litzateke. Obsesionatu gabe; irakaskidetza bitarteko bat baino ez da, ez da helburu bat. Helburu bakarra aurrean dugun pertsona horren garapena da. Ez dago beste helbururik; gainerako guztiak bitartekoak dira. Beraz, aplikatu gaitzen ilusioz, pasioz, gogoz eta energia guztiarekin. Ikasleei ezin diegu gu emateko edo esploratzeko prest ez gauden ezer eskatu.

Helburu nagusia pertsona bakoitzaren garapena da. Irakaskidetza, irakasleen arteko elkarlan horrek, zer onura ekartzen dio pertsonaren garapenari?

Irakaskidetzaren bidez ikasketa prozesua pertsonalizatua egin liteke. Ez soilik behar zehatzak dituzten ikasleekin, baizik eta orokorrean. Begirada zailtasunetan kokatzen dugu maiz, baina badira beste ikasle asko oso ondo ari direnak eta horiei gehiago eskaini behar diegu. Dauden lekutik harago iristeko bitartekoak eskaini behar dizkiegu guztiei. Irakaskidetzak hori eskaini dezake irakasleen rolen bidez. Rol bakoitzak bere helburu pedagogikoak dituela ulertuz. Toki berean gertatzen denari buruzko hainbat begirada izatea, bi, hiru, sei begirada izatea, zoragarria da. Hortik diagnostiko anitzagoa, osatuagoa, ebaluagarriagoa... aterako da eta ikaslearen gaitasunak eta aukerak biderkatuko ditugu. Ispilu modukoa da: ikasleek batera ikusten gaituztenean,



Orain arte zure gela, zure ikaslea –zure hori erlatibizatuta, jakina– izan den hori partekatu behar duzu eta horretarako borondate esplizitua behar da. Jakina, baita errespetuzko jarrerak eta malgutasun handia ere

batera aritzen, batera lanean, batera hanka sartzen... Haiek ere bide hori egin dezaketela ikusiko dute.

Ko-irakaskuntzak ikasgelan bi irakasle edo gehiago sartzeari eskatzen du. Irakasle kopuruari dagokionez, ba al da mugarik?

Ez. Ez dago toperik. Aurreko batean sei irakasle egon ginen ikasgelan elkarrekin. Sei irakasle leku berean une berean sartzeko, aurretik diseinu lan handia egin behar da, zer helburu bilatzen dugun jakiteko, gutako bakoitzaren rola helburu horren zerbitzura jartzeko eta momentu bakoitza zertarako den garbi izateko. Egoki eginez gero, emaitza ederrak lortzen dira eta ebaluazioa ere oso interesgarria da. Behin klasea amaitu ondoren seiok biltzea eta egindakoa ebaluatzea oso interesgarria da. Irakaskidetza ezinbestekoa da proiektuak lan egiteko. Proiektu batek hainbat konpetentzia eta hainbat ezagutza biltzen ditu eta pertsona batek nekez bilduko ditu horiek guztiak. Irakaskuntza tradizionalak egin izan duen eta oraindik maiz egiten duen akatsa da ezagutzak modu isolatuan irakastea, eta era horretan ikaslearen ulermena mutilatu egiten dugu. Baina ezagutzak testuinguru jakin batean interakzioan jartzen baldin baditugu, guztiak logika handiagoa hartzen du eta ikasleek askoz modu egokiagoan, integralagoan eta sakonagoan barneratzen eta gogoratzen dituzte edukiak, gehiago parte hartzen dute... Ikasketa prozesua askoz ere eraginkorragoa da. Hori guztia aurrera eramateko baliabide asko behar dira, hori bai. Lau orduko saio batean sei irakasle sartzeko baliabideak behar dira, baina azpimarratu nahiko nuke baliabide gutxiarekin gauza zoragarriak egin daitezkeela. Baliabide optimorik ez badago, beste indar gune batzuetara joko dugu: gogoia, sormena, elkarrekintza... eta ondoren joango gara baldintza objektiboagoak osatzen. Baldintza objektiboak eta subjektiboak

eduki behar ditugu eta horien arteko uztartzea ahalik eta harmoniatsuen bultzatu behar dugu.

Irakasleei segurtasunik ematen al die talde lanean aritzeak?

Batzuetan bai. Biluzte lan handia egin behar duzu eta norbera pozik biluzten da zer erakutsi duenean, baina zer ezkutatu duenean, nekezago biluzten da. Horretarako konfiantza handia behar da, eta konfiantza espazio horiek berariaz landu behar dira. Beldurra eta erreparoa duten irakasleei lasai hartzeko eta haien neurrian emateko esango nieke. Elkar ulertzea eta elkar onartzea ezinbestekoa da.

Irakasleen rola aipatu dituzu. Zein dira?

Hainbat dira eta rol bakoitzak helburu jakin bati erantzuten dio. Hasieran hainbat rol hartzeko eta ondoren irakasleoi egokien datozkigun horietara mugatzeko joera izaten dugu, eta begirada ikasleengan kokatu beharrean geure ziborerrerantz joaten gara berriro ere. Hori ekidin beharko genuke. Etengabe gogorarazi behar diegu geure buruari geure misioa aurrean dugun pertsonaren garapena dela. Gehien erabiltzen diren rola, intuizioz erabiltzen direnak, zein dira? Demagun ikasgelara bi irakasle sartzeko direla: batek azalpenak emango ditu eta besteak behaketa lana egingo du. Baina horrelakoetan, behatzaileak maiz ez du jakiten zer behatu behar duen. Zergatik? Ba, aldoan duen irakaslearekin saio horren helburu zehatza zein den ez duelako aldeztu aurretik adostu. Eta zer behatu behar duen ez baldin badaki, bueltaka ibiliko da, lagunduko du, baina zer ebaluatuko dute ondoren? Askotan ez gara rol bakoitzak duen potentzialitate guztia esplotatzeko gai izaten. Rola murrizteko tentazioa izaten da eta fokua aldatuz joaten da, fokua ikaslea izan beharrean, norbera izaten hasten da eta gure konfort eremura itzultzen gara. Hori

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea



apurtu egin behar da: geure buruari zer garen eta zertarako gauden gogorarazi behar diogu eta rol bakoitzaren potentzialitateari ahalik eta zuku gehien atera behar diogu. Horretarako aurre-diseinua ezinbestekoa da. Behatzaileak zehatz-mehatz jakin behar du zer behatuko duen, ebaluazioa horren arabera izango delako. Rolak intuizioa eremu objektibora bideratzeko zubi dira eta rolen diseinu horretan oinarritzen da, batez ere, irakaskidetzaren jarduna.

Irakasle askok galdetzen digute zer esan nahi ote dugun rola orekatuak egon behar direla esaten dugunean. Oreka ez dira portzentajeen arabera, ez da komeni irakasle bat beti rol berean egotea. Rolak txandakakoak izan behar dira zeren betikotzen baldin badira, ikasleek leku batean edo bestean kokatuko gaituzte eta hori apurtu egin behar da. Azalpenak ematen dituenak beste gauza batzuetan ere aritu behar du.

Nola bizitzen dute irakaskidetza ikasleek?

Haiekin aurretik egin dugun prozesuaren arabera izaten da. Ikasleak ez dira hartzaile soilak, pertsonak dira. Pertsona guztiak eragile, sortzaile, egile... gara. Geure lana begirada horrekin egin behar dugu eta ikasleek zertan ari garen jakin behar dute. Nola ez dute jakingo haien ikasketa prozesua zertan oinarritzen den?

Baina normalean ez dago hori jakinarazteko ohiturarik.

Inondik inora ere ez, hartzaile soil gisa hartzen ditugulako. Ikasleak ikas-komunitatearen ardatza dira. Beste guztiak ardatz horri eragiteko bitartekoak gara. Haiekin zer egin nahi dugun, nola landu nahi dugun... jakin behar dute, eta haien konplizitatea eta oniritzia ezinbestekoak dira. Besteak beste, ondoren gu eta ikastetxea ebaluatzeko eskatu beharko geniekela. Haien hitza beste



Irakaskidetza bitarteko bat baino ez da, ez da helburu bat. Helburu bakarra aurrean dugun pertsona horren garapena da. Ez dago beste helbururik; gainerako guztiak bitartekoak dira



inorenaren aurretik ipini beharko genuke eta irakaskidetza zer den, zer egin nahi dugun, haien aurrera etorri aurretik zer lan egin dugun... jakin beharko lukete. Ikasleen begirada aintzat hartu behar dugu, batzuetan geuretik geurera aritzen gara eta hori ez da hezkuntzaren eta irakaskuntzaren helburua. Lantzean behin galdu egin gara.

Batez ere etapetan gora egin ahala, ezta?

Bai. Etapetan gora egin ahala perspektiba galtzen joaten gara eta edukiek hartzen dute garrantzia. Irakaskuntzaren funtsaren begirada galdu egin dugu eta hori katastrofe bat da. Ikastetxe gehienek euren hezkuntza proiektuetan pertsona kritikoak eta autokritikoak nahi dituztela diote, baina kritikoak zerekin? Ikasleak kontra egin badizu, egin duzunarekin ados ez badago, aintzat hartuko al duzu? Edo ikuspegi kritiko zurea berresteko soilik nahi duzu? Sortzaileak izatea nahi dugu. Baina zu ados ez zauden espazio bat, begirada bat sortzen baditu? Gaur egungo gizarte ereduak exijitzen duen parentesi horren barruan ibiltzeko moduko kritikaz, autokritikaz, sormenaz ari gara, baina inor ez dadila parentesi horretatik atera. Eta parentesia curriculum bera izan liteke. Curriculumak porotsuak izan behar dira, eskuzabalak izan behar dira, ausartak, gauzak gehitu behar dira, beste batzuk agian kimatu behar dira... eta egin daiteke, inork ezin du dekretuen eta legeen atzean babestu. Irakasleak hori egitera gonbidatzen ditut. Parentesi horretatik atera behar da benetako irakaskuntza prozesu askatzailea egingo badugu. Parentesitik kanpo dauden erreallitateak zentraltasuna hartzen dutenean gertatzen dira aldaketa prozesuak. Irakaskidetzak bide hori egiteko aukera ematen du taldean eta norabide berean pentsatzen hasten zarelako.

Irakaskidetzak ez dio ikastetxeari

aparteko aldaketarik eskatzen. Irakasleak hasi al daitezke beren kabuz hori guztia praktikan jartzen?

Bai, baina zuzendaritzak bide eman behar die. Oinarrian egiten den ariketa da, behetik eta talde lanean. Zergatik ez dugu irakaskuntza taldean ulertzen?

Egoak sartzen dira hor askotan, ezta?

Bai. Eta egoek segurtasunik ezarekin lotura dute. Ego handia duenak segurtasun falta handia du eta bakarrik aritu nahi du, ikasgela itxita. Irakaskidetzak hori apurtzen du, horregatik da garrantzitsua konfiantza izatea, hitz egitea, biluzte ariketa neurtuak egitea eta eremu ez formaletan lortzen dugun konplizitatea sustatzea.

Eta zer gertatzen da zuzendaritzak irakaskidetzaren bidea hartzea erabakitzen baldin badu, baina irakasleek horretarako motibaziorik ez baldin badute?

Ez duela funtzionatuko. Irakaskidetza prozesu moduan irudikatu behar da eta prozesuak beti dira dialektikoak eta joan-etorrikoak. Pazientzia, lasaitasuna, eskuzabaltasuna... eskatu behar dira. Irakaskidetza hautu pedagogiko oso indartsua eta enborrekoea da. Osagarria da eta gainerako arloak ez genituzke baztertu beharko. Zentzuz jokatu behar dugu. Irakaskidetzak bertute asko ditu, baina orain arte egin ditugun gauza askok ere bertute handiak dituzte eta zergatik ez dugu nahastura hori bilatzen? Batzuetan klase magistralak ere eman behar dira. Behar den hori identifikatzea, diseinatzea, pentsatzea... gakoa hor dago. Guztia irakaskidetzara mugatzen baldin badugu, bitartekoa denak pisurik handiena hartuko du eta fokua aldatuko dugu. Fokua ikaslea baldin bada, goazen ikustera zein metodok ematen dituzten emaitza onak. Zuhaitz baten modukoa da: enborra irakaskidetza izan liteke, baina adarrak beste hainbat izan litezke.



Ikasleak ez dira hartzaile soilak, pertsonak dira. Pertsona guztiak eragile, sortzaile, egile... gara. Begirada horrekin egin behar dugu geure lana eta ikasleek zertan ari garen jakin behar dute



Galdera laburrak

01.

Eskola garaiko oroitzen on bat?

Ipurbeltz komikia lehen aldiz jaso nuenekoa. Euskarazko komiki bat ikusi nuen lehenengo aldia izan zen.

02.

Eskola garaiko oroitzen txar bat?

Selektibitatea. Uste dut ni eta beste asko izorratu gaituela. Ez azterketa beragatik baizik eta azterketara iritsi aurreko urteengatik.

03.

Nolako eskola amesten duzu?

Hezkuntzak oraindik deskubritu gabe dauden eremuak deskubritzeko aukerak emateko balio behar du. Harago pentsatzeko aukera zabaldu behar du eta etorkizunera proiektatu beharko genuke.

04.

Zuretzat garrantzitsua den balio bat?

Elkarrekiko eskuzabaltasuna bidean aurrera egiteko gakoa da. Elkar ulertzea, eskuzabaltasuna eta norbere tokitik ateratzea.

05.

Hezkuntzari buruzko film bat edo liburu bat?

La ola filma. Baldintza objektibo eta subjektibo zehatzak baldin badaude iraganeko hainbat gauza errepikatu daitezkeela adierazten du. Horren atzean manipulatzeko gaitasuna dago eta irakasleok gaitasun handia dugu geure aurrean duguna manipulatzeko. Botere handia dugu eta horretaz kontziente izan behar gara, botere hori erlatibizatzen eta aurrean dugunari bere kabuz bizitzen uzteko.

Esperientzia

Kantuen bilduma bat baino askoz gehiago

Arantza Altube eta Mari Karmen Garrido irakasle ohiek hezkuntzan erabiltzeko moduko euskal abestiak bildu dituzte Abestuz ikasi webgunean. EAEko Haur Hezkuntzako curriculum hartu dute oinarritzat, baina nazio ikuspegia dauka, eta aproposa da euskal dimentsioa lantzeko.



» Mari Karmen Garridok eta Arantza Altubek 4.000tik gora abesti bildu dituzte, ikastetxeetan hurrekin kantatzeko.

Kantuak haurren garapenari eta ikaskuntza prozesuari egiten dien ekarpena asko balioesten duten bi irakasle dira Arantza Altube eta Mari Karmen Garrido. Ia 40 urtez Haur Hezkuntzako andereño izan dira biak. Barakaldoko Ibaibe herri ikastetxean elkarrekin egin zuten lan, “pedagogia eta didaktika berritzaileen eta aurrerakoien bila eta, batez ere, ikasleak ahalik eta erarik egokienean euskalduntzeko metodologiak, baliabideak eta tresnak asmatzen”. Kantua funtsezko erreminta izan dute euren zereginerako, eta orain, ikasgelako lanetatik erretiroa hartu ondoren, webgune bat sortu dute, ikasgelan erabiltzeko moduko euskal kantuen bilduma zabal bat.

Huheziko EKT Euskal Kulturgintzaren Transmisioko graduondokoa elkarrekin egin zuten duela urte batzuk Altubek eta Garridok, eta master amaierako proiektu gisa, Haur Hezkun-

tzako haurrentzako euskal kanten azterketa, bilduma eta sailkapena egin zuten; horrez gain, hainbat kantaz osatutako datu basea sortu zuten proiekturako. “Andereño lanetan ibili garen urte guztietan, testulibururik gabe egin izan dugu lan, eta, proiektuak pentsatzean eta idaztean, kostatu egiten zitzaigun landu nahi genituen gaiei buruzko kantuak bilatzea, ez baitzeuden inon bilduta. Bilduma baten falta ikusten genuen, eta geuk sortu dugu”, azaldu du Garridok. “Tutore zarenean, ezin duzu alde batera utzi musika. Haur Hezkuntzan, jolasen bidez ikasten dute, eta haurrentzat, musika, kantua eta dantza jolasa dira”, erantsi du Altubek. Hain zuzen ere, hezkuntzarako aproposak diren kantuen bildumari *Abestuz ikasi, ikasiz abestu* deitu diote (www.abestuzikasi.eus).

Hurrekin erabiltzeko 4.000 abestitik gora bildu dituzte Garridok eta Altubek. Webgunea,

Denetariko kantak

Hiru iturritatik elikatu dute webgunea Arantza Altubek eta Mari Karmen Garridok, azken horrek adierazi duenez: “Alde batetik, haurrentzat egin diren eta egiten ari diren kantuek bildu ditugu webgunean, Imanol Urbietarenak, Ene Kantak taldearenak, pailazoenak, Pirritx, Porrotx eta Marimototsenak, esate baterako, edo Txirri, Mirri eta Txiribitonena. Beste alde batetik, tradizioetik elikatu gara. Euskal kantagintzaren tradizioa ezagutu egin behar dela uste dugu, eta, gainera, uste dugu tradizioko kanta asko oso erabilgarriak direla eskolan. Hirugarrenik, kanta garaikideak hartu ditugu, umeei gusatzatzen zaizkienak, ETS, Huntza...”. Horrela, andereño lanetan aritzen zirenean topatzen zuten arriskua saihestu nahi izan dute, Altubek azaldu duenez: “Beti kanta berberetara jotzen genuen, ezjakintasunagatik eta ez zeudelako eskura”.

Kanten aukeraketa egiteko orduan, erritmoa eta jorratzen duten gaia izan dituzte kontuan; “ezin ditugu kanta guztiak sartu, eta irizpide garrantzitsua izan da curriculumeko gaiekiko lotura izatea”, azaldu du Altubek.

ordea, ez da abesti zerrenda soil bat. “Jasotako kantu guztiak ikasgelan erabil daitezkeen gaiekin lotu ditugu, EAEko curriculum berria oinarritzat hartuta, hezitzaileen irakaskuntza prozesuen plangintzan lagungarri izan daitezen”, adierazi du Garridok. Alta, Altubek zehaztu duenez, webgunean jasotzen diren abestiak ez dira aproposak haur txikiekin soilik erabiltzeko; “Lehen Hezkuntzan edo ikasle nagusiagoekin erabiltzeko eta lantzeko modukoak ere badira asko eta asko”.

Zelan erabil daiteke webgunea?

Egileek hiru ekarpen egin nahi izan dizkiote euskal hezkuntzari eta kulturaren transmisioari, euren bildumarekin: “Batetik, ahalik eta kanta gehien biltzea; bigarrenik, katalogoan agertzen den kanta bakoitzean zehaztea zer gai lantzeko izan daitekeen egokia; eta, azkenik, koloretako betaurrekoak jarri eta abestiek transmititzen dituzten balioei erreparatuz begirada kritikoa zorroztea, abestien egokitasunarekin lotuta”. Izan ere, webgunean entzungai dagoen abesti bakoitzaren ondoan, hurrekin baliatzeko egokia den ala ez zehaztu dute egileek. “Abesti guztiek ez dituzte transmititzen gizarte hobe bat eraikitze balio egokiak, eta horrelako kasuak, batez ere, tradiziozko kantuetan topatu ditugu: sexu eta genero estereotipoak, arrazakeria, erlijio jakin baten aldeko apologia, animalien aurkako tratu txarrak... Horregatik, bistaratu egin nahi izan ditugu haur kantuetan ezkututzen diren estereotipo, jarrera eta iritzi matxistak, xenofoboak, lodifoboak eta abar, hezitzaileek kanta horien erabilera egokia egin dezaten”. Sorgina Pirulina edota Loa loa jarri dituzte adibide moduan: “Aita gurea Gasteizen da/ ama mandoan hartuta, / aita gureak diru asko du /ama bidean salduta” kantuek, adibidez, ikasle nagusiekin hainbat balio lantzeko balio dezake”, esan du Garridok.

Webgunearen erabileraz galdetuta, hainbat modu aipatu dituzte egileek: “Ikasgelan gairen



bat landu nahi dugunean eta kantuari garrantzia eman nahi zaionean, gai zehatz horri buruzko abestiak bilatu ditzakegu. Webguneak gai horri loturiko abestien zerrenda emango digu, eta horietako bat aukeratu dezakegu une horretan bertan, edota pdf-a jaits dezakegu, aurrera begira zein gehiago erabil ditzakegun jakiteko”, kontatu du Garridok. Erabilera libre ere ikusten dio Altubek: “Korroan edo batzarrarean gaudenean egunerokotasunari loturiko gai bat ateratzen bada, oso erraza da bilaketa bat egitea”. Gurasoentzat ere baliagarria iruditzen zaie webgunea: “Alde batetik, haurrak ikastetxean lantzen ari diren abestiak eskura edukitzeko aukera ematen die gurasoei; eta, bestetik, etxean sortzen diren gaien araberrako bilaketa egiteko aukera ona izan daiteke. Kulturaren transmisioari begira baliagarria dela ikusten dugu”, azaldu du Garridok.

Nazio ikuspegia

Oinarrian EAEko curriculumak badauka ere, herri curriculumei ekarpena egiteko asmoarekin sortu dute webgunea, eta hainbat

herri kantuek ere sartu dituzte, hala nola Eibarren edo Otxandion jasotakoak. “Nazio ikuspegiarekin eginda dago bilduma hori, eta Iparraldean eta Nafarroan ere baliagarria dela ikusi dute”. Ahalegin berezia egin dute, gainera, Iparraldeko ekoizpena jasotzeko: “Diskoen eta abestien ekoizpena ikaragarria da Iparraldean, eta baliagarriak eta politikak dira Euskal Herri osoko ikastetxeetan erabiltzeko; euskalki ugari eta doinu berriak ere ekarri ditugu Iparraldetik”, esan du Arantza Altubek.

Webguneak 4.000 abesti baino gehiago ditu entzungai, eta horietako askoren hitzak, bideoak eta karaokeak ere jaso dituzte (azken horiek Gabi de la Mazak eginak). Abesti guztiak Youtuben eta Spotifyn argitaratu dira. Keinu hizkuntzan dauden euskarazko abestien bideoak ere ikus daitezke webgunean. Telegram kontu bat ere sortu dute webgunearen harira, bilduma elikatzeko, ikastetxeetako esperientziak partekatzeko edota iradokizunak helarazteko. EIMAK onetsitako proiektua da, eta lametzak garatu du webgunea.

Joxe Mari Auzmendi beka, Jakinmin elkartearentzat

Ekarpena

Jakinmin elkarteak jaso du Joxe Mari Auzmendi hezkuntza beka. Elkarrizketa argudiatu kooperatiboari buruzko lana aurkeztu dute eta bi urte izango dituzte proiektua garatzeko.



Joxe Mari Auzmendi ordezkariak Hernaniko

zenaren senideak, Jakinmin elkarteko kideak eta Hik Hasiko udaletxean, bekaren sari banaketan.

Hik Hasik eta Hernaniko Udalak ematen duten Joxe Mari Auzmendi hezkuntza bekaren bigarren deialdiak irabazlea du: Jakinmin praktika filosofikoen elkartea. *Elkarrizketa argudiatu kooperatiboak: hezkuntza komunitatearen hausnarketa, bizikidetzeta eta erabaki prozesu parte-hartzaileak sustatzeko metodologia* izeneko proiektua aurkeztu dute. Proiektu horren helburuak bi dira nagusiki: alde batetik, ikasleengan hausnarketarako gaitasuna, bizikidetzeta eta erabaki prozesuetan parte-hartzea sustatzea. Eta, bestetik, irakasleek erabakiak modu parte-hartzailean hartzea.

Urtarrilaren 22an egin zen sari banaketa Hernaniko Udalean eta bertan izan ziren Hernaniko Udaleko Hezkuntza zinegotzi Axier Mingo, **Hik Hasiko** formazio arduradun Mikel Agirrezabala, Joxe Mari Auzmendi zenaren senideak eta Jakinmin elkarteko kide Imanol Alvarez eta Garikoitz Moya.

Jakinmineko kideen iritziz, gizartean oro har, eta baita klaustroetan ere, "fundamentuzko hausnarketa eta argudiorik gabeko erabaki prozesuetara ohituta gaude. Prozesu bat demokratikoa dela diogu bozketa egiten dugunean, baina prozesu demokratiko eta parte-hartzaile bat hori baino askoz gehiago da".

Lan osatua eta aberatsa

Hik Hasik izendatutako hiru ordezkari eta Hernaniko Udaleko bi ordezkari osatu dute epaimahaia eta haien iritziz, oso lan osatua da, proposamena ikasleentzat zein irakasleentzat egiten baitu. Ikastetxeen funtzionamendurako oso aberatsa dela baloratu dute eta ikastetxeetako hormak gaindituz, herrietako beste erakunde eta taldeetako parte-hartze moduak hobetzeko baliagarri dela uste dute.

Aurten orotara, hamar proiektu aurkeztu dira beka deialdira, eta emaitzarekin gustura agertu da **Hik Hasi**: "Anitzak izan dira, batzuk ikuspegi nazionalekoak, besteak tokian tokiko proiektuak, eskola barruko zein kanpoko proposamenak, irakasleentzat, ikasleentzat, familientzat zein herriarentzat pentsatutakoak...". Izan ere, Joxe Mari Auzmendi hezkuntza bekaren helburuetako bat hauxe izan da: ikastetxeen beharrei erantzungo dien ikerketa eta azterketa eginez, eraldaketa prozesuan lagunduko duten oinarri teorikoak eta metodologikoak proposatzea. Horrela, etengabeko hobekuntzarako bidean, Euskal Herriko ikastetxe guztientzat lagungarria izan daitekeen bide-orri bat proposatzea, hori oinarri gisa hartuta, ondoren ikastetxe bakoitzak bere prozesua egin dezan.

Jakinmin elkarteak 12.000 euroko laguntza jasoko du eta datozen bi urteetan garatu beharko du proiektua. Euskal Herriko ikastetxeentzat eskuragarri jarriko diren lau gida praktikoa izango dira lanaren emaitza.

Sozializazio goiztiarra (0-3 urte): mundu bat deskubritzeko

Ekarpena

Azken urteetan, indar handia hartu du eskolatze goiztiarrak. Horren ondorioz, haurrek eskolan egiten dute orain arte etxeko giroan egiten zuten lehenengo sozializazioa. Testuinguru horretan, garrantzi berezia hartzen dute egokitzeko aldiak, familiaren eta eskolaren arteko harremanak eta haurraren ezaugarriak kontuan hartzeak.



Inge Axpe, Haizea Belza, Gorka Etxebarria, Nuria Galende, Ane Gurrutxaga, Elena Herrán, Jone Sagastui.

KalitatHEZ (Kalitatezko Haur H@zkuntza taldea- EHU)

Azken urteetan, indar handia hartu du eskolatze goiztiarrak. Horren ondorioz, haurrek eskolan egiten dute orain arte etxeko giroan egiten zuten lehenengo sozializazioa. Testuinguru horretan, garrantzi berezia hartzen dute egokitzeko aldiak, familiaren eta eskolaren arteko harremanak eta haurraren ezaugarriak kontuan hartzeak.

Azken hamarkadetan gizartean eta, bereziki, familia ereduaren gertatu diren aldaketen ondorioz, eskolatze goiztiarra ohiko bihurtu da. Beraz, bizitzaren hasierako ikasketak, duela gutxi arte familian egiten zirenak, eskolan egiten dira gaur egun, kasu askotan. Oinarrizko ikasketa horien artean, sozializazioa dago, eta sozializazioa, jaiotzetik bertatik hasten den prozesua den heinean, familian bertan gertatzen da hasieran.

Lehen sozializazioan gertatzen diren familia harreman horiek oso estuak, pertsonalak, indibidualizatuak eta malguak dira, eta bigarren sozializazio taldeetan dagokion lekua aurkitzen lagunduko diote haurrari. 0-3 urte bitarteko haurren zikloa zabaldu arte, haurrak etxeko giroan garatzen zuen lehen sozializa-

zioa, eta eskolan bigarren sozializazioa egiten zuenerako, prestatuago egoten zen. Gaur egun, berriz, lau hilabeterekin eskolatuz gero, gainjarri egiten dira lehen eta bigarren sozializazioa.

Bigarren sozializazioaren abiapuntua 0-3 adin tarteko eskolan gertatzen da. Haur eskola-ko ohiturek, espektatibek eta errealitateak (famiarenak baino zehatzagoak eta zorrotza- goak eta, oro har, familek dituztenen aldean desberdinak) kontuan hartu beharko lituzkete haurraren ahaleginak edo beharrianak. Eskolak, testuinguru berria denez, egokitzapen indibidualizatua eskaini behar du.

Sozializazioa eta eskolatzea ez dira beti batera joan, ordea. Etxean, zaintza, haurraren ezagutza sakona eta trataera indibidualizatua gailentzen dira, eta eskolan, berriz, goi mailatik datozen irakaskuntza irizpideak inposatzen dira, haurrak oraindik horretarako txikiak diren arren. Horiek nahasteak, eskakizun bitxiak eta arazoak sortzen ditu maiz.

Irakaskuntza ereduaren arabera, apur bat sinplifikatzen dira haur nagusientzako helburuak, arauak, mugak, erritmoak, materialak, jardue-

rak, denborak edota edukiak, eta haur txikiei aplikatzen zaizkie horiek guztiak, haiek horretarako prest egon baino lehen. Eraitza, ezinbestean, hezkuntza autoritarioa da. Haur txikiaren onuraren izenean, haurra engainatzen da; objektu bihurtzen da, eta haren arreta desbideratzen da. Helduaren gustukoa den zerbait egiten duenean, animoak ematen zaizkio biziki, eta, gustukoa egin ezean, gutxietsi edo zigortu egiten da. Haur txikiengan zentratutako ereduak, aldiz, haurraren garapen mailak, interesak, gogoak, hazierak, heldutasunak eta ikaste prozesuek agintzen dute, helburua beti haien autonomia eta ongizatea bermatzea baita (ikus **Hik Hasi** aldizkariaren 271. zenbakia).

Egokitzapen-aldiaren garrantzia

Eskolatzeak dakarren trantsizioa errazteko, aldi esanguratsu eta sentikor bat igaro behar du haurrak: egokitzapena. Etapa horretan, haur eskolan lasai eta gustura egoten laguntzen dio hezitzaileak umeari, senitartekoen laguntzaz (ikus **Hik Hasi** aldizkariaren 228. zenbakia). Baina, haurraz gain, senideek eta hezitzaileak ere egoera berrira egokitu behar dute. Une horietan, aparteko garrantzia hartzen du etxeko bidez haurraren pixoihalaren aldaketaren, jatearen eta loaren berri izateak. Ezer epaitu gabe entzun eta aritu behar dugu, ez baitagokigu guri epaiketarik egitea. Anna Tardosek dioen moduan: “Amak haurra zaintzen du, hura maite duelako, eta hezitzaileak umea maitatzen du, hura zaintzen duelako”.

Haurrak sufritu egingo du gertukoengandik banatzean; hezitzailearen aldetik baldintzarik onenak izanda ere, banaketa zama handia izango da harentzat. Baina haur eskolako antolamenduak eta hezitzaileen egiteko erak eta jarrerak sufrimendu hori apaltzen lagundu diezaioke. Nola? Lehenik eta behin, harentzat erreferentea izango den hezitzailea esleituz. Hezitzaileek taldeko haurren ardurak banatu beharko dituzte, bakoitzari egokitutako haurrak hobeto artatzeko eta, horren ondorioz, hobeto behatzeko, sakonago ezagutzeko, laguntza zehatzagoa eskaintzeko eta harremanak familia gutxiagorekin izateko, besteak beste.

Hezitzaile erreferentea da haurtxoaren edo haur txikiaren eskolako trantsizioaren azken arduraduna. Etxeko ohiturak abiapuntu gisa hartzeaz gain, hezitzaileari haurra pertsona gisa tratatzea eta errespetatzea dagokio, eta hari denbora ematea eta inguruko errealitateaz kontzientzia hartzen laguntzea. Haurrari, bere talde sozialaren kultura partekatzen



Etxean, zaintza, haurraren ezagutza sakona eta trataera indibidualizatua gailentzen dira, eta eskolan, berriz, goi mailatik datozen irakaskuntza irizpideak inposatzen dira, haurrak oraindik horretarako txikiegiak diren arren

jarraitu dezan, eskatzen zaionaren, gertatu denaren, gertatzen ari denaren edo interesatzen zaionaren berri eman behar zaio. Horrez gain, ohitura edo arau sozialen edo berearekin talka egin dezaketen beste ikuspuntu batzuen berri eman behar zaio. Hortik dator hezkuntza goiztiarraren kalitatea. Bestela, haurraren eta hezitzailearen arteko konfiantza zapuztu egingo da, eta arazoa ez da hezitzailearekiko konfiantza galtzea, mundu kulturala irudikatzen duen hezitzaile erreferentearekiko konfiantza zapuztea baizik, hori behin betiko apurketa baita. Hortik dator eskola porrota. Egutero lagundu dakioke, adibidez, ikasgelan bere trantsizio objektuari lekua eginez eta behar duenean objektu hori hartzeko aukera eskainiz. Nagusiagoa denean, leku ikusgarri batean kokatu daiteke familiaren argazkia, behar duen guztietan haiekin egoteko aukera izan dezan. Era berean, eguneroko harreraren eta agurrean, bileretan... familiarekin harreman estua izatea komeni da.

Egokitzenaren ondoren, zer?

Haurrak egunero egingo ditu etxetik eskolarako eta eskolatik etxerako trantsizioak. Hori dela eta, ikasgela atontzeaz gain, goizeko harrera prestatu behar da egunero, familia agurtzeko tartea eskainiz eta haiengandik hainbeste orduz banatuta egoteko prestatuz; esate baterako, oso goiz baldin bada, berriro sehaskan sartzeko aukera eman dakioke, edo gosaltzekoa. Hortaz, berez bigarrena baina errealitatean lehen sozializazioa den hezkuntza goiztiarra atsegina izan dadin, haur txikiaren eta haren inguruaren arteko bitartekaritza lana egin behar da etengabe, beharrezkoa den bitartean. Haurren egoeraren, beharrezkoaren eta gogo zehatzen arabera jardutea da gakoa, eta horrek, askotan, esku hartze zuzena beharrezko, zeharkako esku hartzea eskatzen du. Adibidez, espazioa egokitzea, haren garapen motorraren mailarekin bat egiten duen ekipamendua kenduz edo jarritz, edota konplexutasun handiagoa duten eta trebetasun handiagoa eskatzen duten materialak edo jostailuak aurkeztuz.

Baldintza fisiko egokiak –espazioak, ekipamenduak, materialak, jostailuak...– bermatzeaz gain, konfiantzazko hezitzailea behar da, zailtasun uneetan bitartekari gisa arituko dena. Bitartekaritza negoziazio gisa ulertu badaiteke ere, ez du zentzu bera kasu horretan. Etxean, negoziatio oso malgua da, eta eskolan ere horrelakoa izan beharko luke. Helduak eta haurrak ezin dute, inondik inora, neurri bereko hurbilketa egin. Lehenik eta behin, haurrek arauak ulertu behar dituzte, eta, horretarako, zentzuzkoak izan behar dute, gutxi, argiak, eraginkorrak eta ulergarriak izateaz gain. Ulertu dituztela egiaztatu behar da, eta, horrela ez bada, arauaren zehaztapenak ahoz adostu beharko dira. Agian, ingurunea fisikoki berrantolatu beharko dugu, arau horiek ulertzen laguntzeko. Haurrak, sortzen ari den heinean, bere mundu txikian nola kokatu daitekeen ikasi behar du, inguruak eskaintzen dizkion aukera posible guztiak probatuz.

Haurtxoak orain eta hemen ikasten du, une oro. Etengabe ikasten du pertsona helduarengandik, haren portaera eredua hartuz. Ulermena errazteko eta komunikazioari berriro ekiteko, bestearen ikuspuntua itzul diezaioke hezitzaileak, edo zenbait informazio trukatu ditzake, eta zuzen adierazi, inor epaitu gabe: “Orain, Ainara pozik dago kamioi gorriarekin jolasean”, edo “Jonek kamioi gorriaren gurpilak biratu nahi ditu”. Horrela eginez, ez dago engainurik, ez arretaren desbideratzerik, ez eta gutxiespenik ere, eta ez da aparteko animorik behar. Haurrak



Haurrak sufritu egingo du gertukoengandik banatzean; hezitzailearen aldetik baldintzarik onenak izanda ere, banaketa zama handia izango da harentzat. Baina haur eskolako antolamenduak eta hezitzaileen egiteko erak eta jarrerak sufrimendu hori apaltzen lagundu diezaiokete

bere esku ez dagoen zerbait nahi izan dezake, nola edo hala, eta, hark egoera ulertu gabe ukatzen badiogu, nahi duen hori behin eta berriz lortzen saiatzeko arriskua handitu daiteke. Bide horretan zer muga dituen ulertzen badu eta arrazoiak era askotara eta patxadaz adierazten bazaizkio, errazago onartuko du. Onarpenak, alde batetik, onartutakoarekiko konpromisoa dakar, eta, bestetik, negoziatioarekiko eta negoziatioarekiko atxikimendua eta errespetua. Emaizta oparoa, beraz.

Bada ikasgelan zabaltzeko erraza den eta haurren arteko giroa asko baretzen duen arau bat ere: “Inor zerbaitekin jolastan ari den bitartean, hori harena da, eta ezin dio inork kendu. Amaitzen duenean, edonork hartu dezake”. Arau horrekin batera, asko zaindu behar dira baldintza fisikoak, jostailuak eta materialak aurkeztuz, bereziki oso erakargarriak edo berriak eta ezezagunak badira. Neurri horien bidez, gatazka asko saihestu daitezke. Aukerak eskaintzea ere oso baliagarria da: adibidez,

pixoihala aldatu bitartean haurrak jolasean zerabilen objektua uzteko leku bat seinala dezakegu, “hementxe utz dezakezu itzuli arte” esanez; edo ordeko leku bat bilatzeko proposa diezaiokegu. Edozer gauza eskatzerakoan, lagungarria izaten da, zuzenean eskutik kendu beharrezko, hezitzaileak haurrari eskua luzatzea, haurrak eskura eman diezaiola. Lotura sendoa bada eta haurren gaitasunean konfiantza badago, haurrek eman egingo diote.

Bestalde, ikasgelan badira negoziatioekin diren arau batzuk. Esate baterako, minik ez ematea edo larria izan daitekeen arriskurik ez hartzea. Beste guztia negoziatio daiteke: zaintza baten hasiera, bilakaera edo amaiera, zaintza bera beste une batean gauzatzea, jolas baterako kokapena edo materialak hautatzea, zerbait egitea eta desegitea... Eta zer egin daiteke bizikidetzari laguntzeko? Bada, oinarrian, dosifikatu, arauak eta mugak betetzeko gaitasuna lortu arte horiek deseraikiz eta, ondoren, elementuak sartuz pixkanaka. Edo gertatu-



takoaren intentsitatea murriztu, garrantzirik kendu gabe; ulertaraziz, adibidez, haserretu egin daitekeela, baina haserrea pasatu egiten dela, edo nahi duen jostailua berehala libre egon daitekeela.

Eskola egun bakoitzaren garrantzia

Eskola eguna oso emankorra da haur txikiarentzat. Egunean zehar gauza asko egiten ditu haur eskolan, eta aurrerapen, lorpen edota mugen laburpena egiteak haren ahalegina baliotzatzea dakar, ez soilik familiarentzat, baita haurarentzat berarentzat ere. Haur eskolak haurra hezten laguntzen dio familiari, eta, hala, familia seguru eta lagunduta sentitzen da. Eskola eguna amaitzen denean, agurrak bi testuinguruei –eskola eta familia– jarraipena ematen laguntzen du, eta, horri esker, hauraren segurtasun emozionala bermatzen da.

Eskola kulturaren etxea da. Orain berrogei urte Haur Hezkuntzan sartzean huts egiten zuten hainbeste haurren ikasketa prozesuek oso informazio mamitsua eman zuten: gustura eta gogoz sartzen ez ziren hurrek, gerora, arazoak izaten zituzten ikasketa instrumentaletan, idazketan, irakurketan eta matematikan, hain zuzen ere. Hortxe zeuden tristura, segurtasunik eza eta gogo falta ere. Hori iraultzeko asmatu zen egokitzapena, haur txikiei eskolarako trantsizioa egiten laguntzeko.

0-3 urte bitartean etxeko eta haur eskolako helduek baldintzatzen dute sozializatzea, haur txikiari bien arteko mundu berria zabalduz. Sozializatzeko hori koherentea, orekatua eta gardena izan dadin, inguruko helduek lan handia egin behar dute, bai euren artean eta baita haurrekin ere. Elkarrekintza, elkarrekikoa ez bada, bakarriketa da; negoziazioa, barneratzailea ez bada, inposaketa da, eta nahiko erraza da haurtxoekin eta haur txikiekin muga gainditzea, eskola presioaren ondorioz arreta galtzen bada. Kasu horretan, hezkuntza



Badaude ikasgelan negoziaczinak diren arau batzuk. Esate baterako, minik ez ematea edo larria izan daitekeen arriskurik ez hartzea. Beste guztia negoziatu daiteke: zaintza baten hasiera, bilakaera edo amaiera, zaintza bera beste une batean gauzatzea, jolas baterako kokapena edo materialak hautatzea, zerbait egitea eta desegitea...

irakaskuntza bihurtzen da. Hezitzaileek lehen haurtzaroa oso ondo ezagutu behar dute, dudarik gabe, baina are hobeto ezagutu behar dute haur bakoitza. Haurra oso ongi ezagutuz soilik lagundu dakioke, baita sozializatzen ere. Mundu berria handiegia da bidea bakarrik egiteko. Goazen, bada, merezi duen moduan: presarik gabe, baina etenik gabe.

Jakin-mina zorroztu

*hik hasi*ren produktu berriak webguneko dendan daude eskuragarri. Poltsa, estutxe eta koaderno hauekin urtea ezinhobe hasiko duzue!



Ahalduntze eskola

Gora
egin du
arriskuak

Sexu bidez transmititzen diren gaixotasunen diagnostikoak gora egin du azken urteotan. Ikerketek diotenez, gorakada nabarmena izan da gazteen artean, eta datuek zifra adierazgarriak utzi dituzte: sexu transmisiozko infekzioen laurdena 15 urtetik 24ra bitarteko gazteei detektatzen diete.



Aitziber Estonba
Sexologoa eta Gestalt terapeuta



Aitziber Estonba sexologoa eta Gestalt terapeuta da, eta, besteak beste, sexu heziketako lantegiak eskaintzen ditu eskoletan. Sexu bidez transmititzen diren gaixotasunen diagnostikoen igoerak atzean zer arrazoi dituen

galdetuta, informazio falta baztertu egin du Estonbak. Haren ustez, nork bere burua zaintzearekin du zerikusia batez ere, eta azpimarratu du lan handia egin behar dela emozioen arloan.

Nerabeen eta gazteen artean sexu bidez transmititzen diren gaixotasunak ugaritu dira azken urteotan. Zergatik?

Heriotzari beldurrik ez izatea izan daiteke hipotesi bat. Garai batean, hiesa heriotzarekin lotzen genuen, eta beldur handia sortzen zuen horrek. Gaur egun, gaixotasun larria izaten jarraitzen du, baina, oro har, lasaiago gaude. Baina uste dut zerbait sakonagoa ere badela horren guztiaren atzean, eta hauxe da: harremanen barnean geure burua zaintzeari zer-nolako garrantzia ematen diogun, eta ez soilik harreman erotikoetan, baita oro har ere. Lotura zuzena du horrek autoestimuekin. Hezitzaileok hausnartu beharko genuke zaintza hori nola sustatzen ari garen. Eta zaintzak zerikusia du bakoitzak bere burua garrantzitsua dela sentitzearekin eta nork bere burua, bere osasuna eta harremanak zaintzearekin.

Beldur falta aipatu duzu bereziki, baina ba al dute gaiari buruzko informazio faltarik?

Ez, inola ere ez. Informazio asko dute. Agian, ez da fidagarria, ez da egokiena eta, behar bada, kostatu egiten zaie informazio baliagarria bilatzea; baina badakite gaixotasun horiek badirela eta tentuz ibili behar dutela. Tamalez, heriotzarekiko beldurra tartean ez bada, ez dute hainbeste kontuan hartzen arriskua. Beste faktore batzuk ere egon daitezke: gaztetxo askorentzat, pornografia eredu izaten ari da, eta pornografian, sexu bidez transmititzen diren gaixotasunen gaiak ez du lekurik, ez da albo kalterik agertzen, eta ez da inolako ondoriorik ikusten.

Eta pornografian, preserbatiboen erabilerak

ere ez du lekuri izaten.

Ez pornografian eta ez inon. Maitasun erromantikoa ardatz duten filmetan ere, ez da halakorik agertzen.

Zuk harreman zuzena izaten duzu gazteekin. Aipatzen al dute zergatik ez duten babes neurriak hartzen? Mintzatzen al dira horretaz?

Bai. Sexua preserbatiborik gabe hobe dela diote, plazer handiagoa sentitzen delako. Eta, kasu horietan, bikote heterosexualetan, sexu harremanen erdigunean sarketa egoten da, jakina. Larriak diren gaixotasunen artean arriskutsuenak sarketa bidez eta aho-sexu praktiken bidez kutsatzen dira. Harreman horien barnean pertsona prest sentitzen ez bada eta bere burua zaintzen baldin badu, adibidez, ez du sarketarik praktikatu, baina beste hamaika gauza egiteko aukera izango du. Gaztetxoak harremanetan hasi berriak dira, eta beldurraren edota urduritasunaren aurrean, besteak egiten duena edo nahi duena onar dezakete mugarik edo baldintzarik jarri gabe. Kontuan hartu beharreko beste faktore bat dira alkohola eta drogak; ligatzeko lotsa galtzeko hartu ohi dira, desinhibitzea bultzatzen dute eta, horrelakoetan, zailagoa izaten da arriskua ikustea.

Gazteek informazioa badute, baina, agian, tresnak behar dituzte fidagarria den informazioa identifikatzeko. Alde horretatik, inoiz baino beharrezkoagoa al da sexu heziketa?

Bai. Informazioa bilatu dezakete, baina ezin dugu ahaztu zer garrantzia duten sexu heziketan emozioen ezagutzak eta kudeaketak. Sexu heziketa autoestimua indartzera eta emozioen kudeaketa egokia egitera bideratu behar dugu, eta, haren bidez, harreman onuragarrien bila joan daitezen bultzatu behar ditugu. Oso garrantzitsua da nork bere buruarekin zintotasunez jokatzeko, eta gazteei tresnak eman behar dizkiegu, besteak espero dutena alde batera uzteko eta sentitzen dutenaren arabera jokatzeko.



Gehien kutsatzen diren gaixotasunak

Osasunaren Munduko Erakundeak emandako datuen arabera, egunero milioi bat pertsonatik gora kutsatzen dituzte sexu bidezko transmisio gaixotasunek, eta horietatik gehienak sintomarik gabe pasatzen dira. Urtero, 374 milioi pertsonak harrapatzen dute hauetako gaixotasunen bat:

- Klamidiasia
- Gonorea
- Sifilisa
- Trikomoniasia

Horiek dira gure artean ere zabalduen daudenak. Denek dute sendabidea, baina, neurriak hartu ezean, konplikazioak gerta litezke, eta, kasu batzuetan, larriak izan daitezke.

hik hasi

Hezkuntza
eraldatzeko

**Izan zaitez
HikHasitarra!**

www.hikhasi.eus



Egunero izan beharko genuke feminista

50

Proposamena

Martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna da. Hik Hasik argitaratutako Chimamanda Ngozi Adichiren ‘Guztiok izan beharko genuke feminista’ liburuxka nerabeekin hezkidetza eta feminismoa lantzeko irakurgai aproposa da.



Martxoaren 8a morez edo gorriz, baina ongi markatzeko eguna da, oraindik ere eskolako egutegian. Martxoaren 8ak gogorarazten digu, mundu guztian, emakumeak gizonak baino okerrago daudela. Siple bezain gordin. Emakumeak gizonak baino egoera okerragoan daude garapen iraunkorreko adierazle guztietan, Nazio Batuen Erakundearen datuen arabera. Genero desberdinkeriak alor guzti-guzti-guztietan gertatzen dira: munduko analfebetoen hiru herenetik bi emakumeak dira. Pobreziaren aurpegia emakumezkoa da, munduko pobre gehienak emakumezkoak direlako, eta oinarritzko zerbitzu sozialetarako irismen gutxiago daukatelako. Planetako lur pribatuen %98 gizonen izenpean daude.

Feminista izateko hamaika arrazoi

Gaur egun Emakumeen Nazioarteko Eguna esaten baldin bada ere, jatorrian Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna ospatzen da martxoaren 8an. Emakumeen eskubideen aldeko borroka ugariak gogorarazteko eta eskubideak betearazteko eta aldarrikatzeko eguna da. Clara Zetkin sozialistak 1910ean aldarrikatu zuen Kopenhageko II. Emakume Sozialisten Nazioarteko konferentzian Emakume Langilearen Eguna ospatzeko beharra. Hurrengo urteetan izandako hainbat gertakari lazgarrik egunaren beharra ikusgarriago egin zuten. Batetik, 1911ko martxoaren 25ean New Yorkeko Triangle Shirtwaist oihalgintzako fabrika izan zen sutean 149 emakume hil ziren, eta gertakari horrek mundu guztiaren begi bistan utzi zituen emakume langileen lan eta bizi baldintza eskasak. Bestetik, 1917ko martxoaren 8an, Errusiar inperioko hiriburuan, Petrograden (gaur egungo San Petesburgon), ostera ere oihalgintzako emakume langileek hainbat manifestazio egin zituzten eta hiri guztia hartu zuten, Errusiako Iraultza piztu zuten ekintza nagusia izan zelarik. Azkenik, 1975ean Nazio Batuen Erakundeak martxoaren 8a izendatu zuen Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna.

Munduko 30 herrialdetan emakumeei mutilazio genitala egiten jarraitzen dute. Pertsonen salerosketak emakumeei eragiten die bereziki, kasuen bi herenetan eta esplotazio sexuala helburu izan duten pertsonen salerosketen % 94 emakumeei gertatu izan zaie. Bi segundoz behin, neskato bat ezkontzara behartua dago munduan. Eta urrutira joan gabe, gurean ere egunero-egunero salatzen dira biolentzia matxistako kasuak. Soldata-arrakala, batez beste, % 30ekoa da. Eta abar, eta abar...

Baina beste desberdinkeria batzuk sotilagoak dira, egunerokoagoak... eta hautematen zailagoak. Horiek ere identifikatzeko, beharrezkoa da betaurreko moreak janztea.

Chimamanda Ngozi Adichi, euskaraz

Helburu horrekin idatzi zuen Chimamanda Ngozi Adichi idazle nigeriarrak *Guztiok izan beharko genuke feminista* liburuxka, TED talk saio baten ostean. Adichi jabetzen da *feminista* hitzak konnotazio txarra duela jende askorentzat, aldiz, argi zeukan gizarte honek guztiok feminista izateko beharra duela justuagoa izango bada, eta emakumeen eta gizonen eskubide berdintasuna jokoan dagoelako oraindik ere. Beraz, lan zaila jarri zion bere



buruari. Xede hori lortzeko, egunerokora jo zuen idazle nigeriarrak. Esate baterako, eskola garaiko kontuak jaso zituen: umetan ikasgelako notarik onena ateratzen zuenak ikasgelako begiralea izateko aukera izan behar zuen, baina Ngozik notarik onenak aterata ere irakasleak esan zion begiraleak mutila behar zuela izan, ez neska. Helduaroko gertakari ugari ere jaso zituen; adibidez, Nigeriako jatetxeetan gizonekin sartzen den bakoitzean zerbitzariak gizona agurtzen duela eta, ez emakumea. Nigeriako kontuak biltzen ditu saiakeran, eta Europako ikuspegitik hainbat egoera gainditutzat dauzkagula iruditu dakiguke, baina beste hainbat adibide oso ezagunak eta gertukoak egingo zaizkigu. Bere nahia, egunerokotik, ia oharkabean pasatzen diren *txikikeria* horiek, ohiturak, erabakiak eta jarrerak argitara ateratzea izan zen, eta horien aurrean jarrera feminista izateko deia egiten du liburuan, eta zirimiriaren moduan, ideia feministekin bustitzen du irakurlea.

Plazara Goaz euskara elkarteak sustatu zuen itzulpena eta Euskaratuk, AEKren Itzulpengintza eta Zuzenketa zerbitzuak, itzuli zuen. **Hik Hasik** 2017an argitaratu zuen liburuxka, Lorea Agirreren sarrera eta kokatze bikain batekin. Geroztik, hainbat eta hainbat ikastetxetan irakurri dute, irakurri ez ezik landu eta mamitu ere bai, generoaren eta hezkidetzaren gaiak lantzeko aukera handia ematen baitu Adichiren lanak, baina bereziki ikasleek erraz eta gustura barneratzen dutenez, eragina uzten die eta inplikatu egiten dira. Eserialdi bakarrean irakurri eta blaitzen ditu neskak zein mutilak.

Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko, DBH-ko, Batxilergoko nahiz Lanbide Heziketako ikasleentzat ispilu den liburua da *Guztiok izan beharko genuke feminista*. Datorren martxoaren 8rako lanketa egiteko, ikastetxeetara bidalketa garaiz egin ahal izateko liburuen eskaera otsailaren 21a baino lehenago egin behar da. www.hikhasi.eus webgunean dago salgai.

Psikogenesia

Idazketa-sistemaren ikasketa-prozesua

Umeek euren kabuz ikasten dute idazten eta irakurtzen

Baieztape horrek zalantza sortu diezaioke norbaiti, baina denborak eta esperientziak frogatu dute hala dela. Idazketa sistemaren ikasketa prozesuari heldu dio **Elena Laiz** irakasleak lan honetan eta hamaika irakaslek eta Laizek berak trukaturako esperientziak jaso dira.

Monografiko berria



Ikastetxeen hobekuntza pedagogikorako prestakuntza integrala

BeAtarrei, aholkulariei, zuzendaritza-
taldeei eta irakasleei zuzendua



Jordi Mateurekin

Aholkularia, formatzailea, CAIEV
formazio elkartearen eta Ca
L'Aulet eskolaren sortzailea

Eskoletan aldaketa-prozesuak oso konplexuak dira. Beharrezkoa da prozesu horiek planteatzen dituzten erronkak ezagutzea, antolaketa eta irizpide egokiekin aurre egin ahal izateko.

- 📅 20 orduko homologazioa
- 📅 Otsailak 22, 23 eta 24
- 🕒 Ost. 17:00-20:30 | Ost. 17:00-20:30
Lar. 9:30-13:00 / 14:30-18:00
- 📍 Andoain, Basteroko Ekitaldi Aretoa

Izen-ematea zabalik urtarrilaren 25etik aurrera

www.hikhasi.eus



Aitor Urkiza

Lapuebla de Labarcako
Assa Ikastolako irakaslea

Atzeko atetik

Periferian, hezkuntza eta euskal nortasuna

Arabako hegoaldean, Logroñotik hurbil, Errioxarekin mugan. Arabako Errioxa 15 udalerrik eta lau kontzejuk osatzen dute, guztira 11.487 biztanlek. Herririk handiena Oion da, 3.305 biztanlerekin.

Duela 45 urte ikastolak sortu ziren eta pixkatxo bat geroago euskaltegiek helduen alfabetatzeari eta euskalduntzeari hasiera eman zioten. Ordutik hona, euskararen ezagutza asko hedatu da, hainbat eta hainbat belaunaldik ikastolei esker jaso dute euskara, eta beste hainbatek, euskaltegiei esker. Beraz, gaur egun, 45 urtetik beherako biztanleek euskara ulertzen dute; baina zenbat dira hitz egiteko gai? Zer da haientzat euskara? Seme-alabei zein hizkuntzatan hitz egiten diete?

Ikastolek eta eskolek euskara dakiten biztanleak hezten dituzte hemen, baina euskaldunak al dira? Nire ustez, hizkuntza jakitearekin ez da

nahikoa. Eskualde honetan, ikastolen sortzaileek ez zekiten euskaraz, baina euskaltzaleak ziren, euskal nortasuna sentitzen zuten. Orain, euskara ongi, gaztelania hobeto eta ingelesa bikain menderatzen dute ikasle askok. Prestigioarengatik ote, edo zerbait galdu da bidean?

Gu bizi garen lekuan euskara ezin da hizkuntza bat gehiago soilik izan. Euskal curriculumaren garrantzia ezinbesteko da. Kontziente izan behar dugu, euskal nortasuna bermatu ezean, hiru edo lau hizkuntza menderatzen dituzten herritarrak gizarteratuko ditugula, baina euskal nortasunik gabeak. Aurreko guztiari mugan bizitzea gehitu behar zaio, horrek sortzen duen *Errioxaranzko* inertziadun nortasuna kontuan izanik.

Etorkizunerako erronka estrategikoa da gaia modu kontzientean eta eraginkorrean lantzea, batez ere periferian bizi garenontzat, hezkuntzatik hasita.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

Elkarrekin hazten



Gurutzeta Eskola • Lehen Hezkuntzako 5. B gela

ISO 200

Zatoz argazkira

AURREMATRIKULA, OTSAILAREN 7tik 23ra

www.euskadi.eus/hezkuntza

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN